



Jabi: ahots nagusia
Mitxus: ahots nagusia
Unai: baxua eta ahotsak
Antton: tronpeta eta ahotsak
Manex: tronboia eta ahotsak
Jokin: bateria eta ahotsak
Vierbu: gitarra eta ahotsak
Julen: gitarra eta ahotsak
Ion Esnaola: barne antolakuntza



Ze Esatek! taldeak (Donostia, 2009) oinetakoak utzi ditu agerian: batzuk zulatuta, besteak kiratsa dariela, gertukoak rock-punk melodiko usainarekin eta zapata karratu zuri-beltzak orain arteko kantu bakarrean, banbak, convers-ak, tenisekoak, ultra trail lasterketak egitekoak eta elefanteari tamainako babes-oinetakoak jarri dizkiote, segurtasunekoak (ez daki-gu nork nor babesteko diren). Bosgarren zapata pareta, dena den.

Ze Esatek! taldearen bosgarren diskoa Higain estudioan grabatu eta nahastu du Haritz Hareguy teknikariak 2017ko uztaila eta abuztuan zehar. Masterizazioa Juan Haldogok egin du Mastertips estudioan. Hemen diskoak izan dituen kanpoko laguntzaileak: Alex Gatibu, ahotsak (Egusentia heldu baino lehen), Pello Skakeitan, ahotsak (Ezin badugu amestu), Rake, Onintza, Eli eta Jone Koban, ahotsak (Su olatu baten), Libe "liv Wallace", ahotsa Rude girl abestian, eta Garazi Eraulek teklatuak jo ditu abesti berean. Sustrai Colinak testu hauek idatzi ditu: Dena aldatzen da, Ekaitzetan eutsiz, Su olatu baten. Andoni Mugikak idatzi du Etorri Mr. Marshall abestiaren letra. Argazkiak Eider Iturriagak ateratu ditu.

Ze Esatek! taldearen bosgarren diskoaren izenburua "Ibilita ikasten da erortzen" propio lapurtu-eskatu diote Sustrai Colinari. Alaitasuna galdu gabe, rockaren berme asko ditu bere hanken magalean, buruan rock esparruko estilo anitzetara igo da: punka, rock, punk melodikoa, rock melodikoa, hard-corea, hard-core melodikoa, pop-punk, pop-punk melodikoa. Ze Esatek! taldearen diskorik egurzaleena. Melodiak gainezka, zapatak soinean eta seriotasuna tabernako komun zuloan utzita. Algarak bizitzeko jaio ziren zerbait esateko duen talde hau: alaitasunetik gune politikoa azahzteko, dibertitu gaitezten rockaren atzaparretan.

DENA ALDATZEN DA

Nondik dator indar hori? Ate guztiak itxita diruditen horietan, ezer aldatuko ez dela dirudien horietan, nondik dator sarrailek ostikoz apurtzeko adorea ematen digun indar hori? Nondik dator azken amorru tanta hori? eta zenbat aldiz ateratu gaitu errutinatik, etsipenetik, noraezetik... Kemen horri.

Auto baieztapen kantua da, intro eta estrofako gitarra zarrastakada bakoitza taupada bat da, pauso bat, mahai gainean emandako ukabilkada. Zartatutako instrumentuen melodiak kolpeka gidatzen gaituzte estribiloaren eztanda. Hemen gaude eta egurra ematera gatoz.

EGUSENTIA HELDU BAINO LEHEN

Beldurrak hegoak ebakitzen dizkigu baita maitatzeko uanean ere bai. Are gehiago konbentzionalismotik kanpo maitatzen dugunean. Damuetan ito edo kaiolatik irten, eta aske hegan egin? Punk tantee zipriztindutako rocka. Indartsu eta azkarra gitarretan, kementsu eta nekazezin partxeetan, lauki baten lau ertzak dira. Baina ahotsaren sentikortasunak, hertz horiek goxatu egiten ditu, abestia ere borobilduz.

EKAITZETAN EUTSIZ

Batzuetan atzera begiratzea ez da erraza, garaipenen eta porroten balantzea egiteak beldurra ematen baitu. Baina denbora nahikoa pasatzean, beste modu batean egin ezin izanaren aitorenak laguntzen du. Hori da garaipena. Abesti honek musikaren indar potentzial elastikoarekin jokatzeko du. Zuzenean hasierako haizeen melodietara jo beharrean edota estrofatik estribillora salto egin beharrean, aurre intro bat eta aurre-estribilo bat sortu ditugu, abestiak tentsio momentu bat izan dezan hurrengo zatira katapultatu aurretik. Tentsio puntu horiek izan dira abesti honen gakoa.

ZAPATAK GASTATU ARREN

Abestiz abesti, arotik arora gabiltza. Dagoeneko kolpe batzuk baditu Les Paulak eta ez da dendatik oholtzara pasatu zen egunean bezain zuri, horixka ukitu batek jantzen du orain. Zulo askotatik lagundu dit irtetzen... Gustuko dut horixka ukitua. Punk-rock, hard-core melodikoa, pop-punk... hamaika moduz deituko diogu guztiok dugulako uzki bana. Baina hizki zopa horren atzean denok dakiugu zertaz ari gare. Horixe bera da hau! Abiadura gitarretan eta baketak zein bonbo pedala ziztu bizian, ahotsa itsaskor eta inozoak... Dei izeaiozu nahi duzun bezala, guri best! P.D. Hasieran eta estrofetan sorpresa har dezakezu eman diogun ukitu dantzagarriarekin.

EZIN BADUGU AMESTU

Espiralak biraka dirau, ez du atsedenik hartzen: helburua zehaztu, kriminalizatu eta kolpatu; helburua zehaztu, kriminalizatu eta kolpatu; helburua zehaztu, kriminalizatu eta kolpatu... eta hala ere amesteko gai diren kimuak sortzen dira. Ez diogu loratzeari utziko. Rockaren beste ikuspuntu bat. Aurpegian zaplazteko bat, lehen segundotik. Etortzen ikusi ere ez den zuzeneko, espero ez den crochet-a... Gutxitan bezain gogor, momentuz, melodia eta errimen eskuburdinetatik aske ere. Bad Religion taldearen koru epiko horien zale amorratuak gara eta abesti honen amaieran erakutsi nahi izan dugu.

RUDE GIRL

Zuek rude izateko uena duzue, guk, pausu bat atzera egitekoa. Izan rude.

Beti haizeekin bueltan eta gitarra garbi eta zikinak tartekatzen aritu bagara ere, ez genuen orain arte betiko ska zahar kutsudun abestirik sortu, eta bagenuen horretarako gogo. Txastonaren gainean skank kolpeak joan etorrian, gitarrek, hammond-a eta haizeak elkarri lagunduta, bakoitza bere momentuaren zain. Ahots lasaiak eta koru jostagarriek, ematen diote azken ukitua abestia usain zaharrez jantziz.

ETORRI MR. MARSHALL

Goragalea ematen dit etxetik atera eta ehun metrora dagoen autobus geltokira joateko hamabost minutu behar izateak, non dauden eta zertan ari diren ez dakiten ehunka turista-argazkilari saihestu beharrak. Non dago nire auzoa? Ongi etorri Mr. Marshall.

Nerabazarora buelta eta garai hartan entzun genituen hainbat eta hainbat taldeetatik edandako estruktura eta melodia kutsuak dituen kanta da. Oraingoan, punk rock melodiko eta txankleteroa jorratu duten taldeak iturri dituen kantua dugu. Estrofa zuzen eta karratuak, estribilo melodiko eta epikoagoetara ematen dutenak. Erdian, guztiarekin hausten duen zubia.

SU OLATU BATEN

Batzuetan, nazkaren putzuak gainezka egiten duenean, irudimena bere kabuz lanean utzi eta mundua Tarantinoren filmen gorri plastikoz betetzen dut. Ez da kontrolik gabeko sarraskia, pausatutako pausoz, 224 beateko tempo dantzagarrian hartutako mendekua baizik. Dantzan, su olatu batean. Kadentzia kontua. Abesti geldoa egin nahi genuen, baina geldiezi-na. Elefantearen pausoaren antzekoa. Urrundu gara gure ohiko erritmo azkarretatik eta bonboaren eta kutxaren indarrak markatu digu bidea. Bestalde, ahotsaren melodiak "mantra" moduan planteatu ditugu, errepikakorrak eta berehala gelditzen diren horietakoak. Horretatik ere estrofetan ahotsak oktava ezberdinetan grabatu ditugu, sarkorrak izan daitezten aurrera bultzatzen zaituzten errozaren antzera. Eta abestia borobiltzeko, estribiloko koruei, elefantearen bitleak eta ibilkera astuna baina geldieziari dotorezia eman diegu.

ritxi aizpuru + ze esatek! (2017ko azaroaren 15ean)

IBILITA IKASTEN DA ERORTZEN

baga biga
 MUSIKA IDEIAK
 Telf: 618 072 076-26 / www.baga-biga.es / info@baga-biga.es
 221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)

